



GILEN HUMBOLDT
(1767-1835)

Egilea:

XABIER ALTZIBAR

HAZIERA ETA KULTURAZ ABERATSA

Gilen Humboldt Postdam-en sortu zen (1767), Prusiako Erresuma ohiko gortean, prusiar nobleziara iritsi berria zen familia batean. Anaia ospetsu bat izan zuen, Alexander Humboldt, natur zientzialaria, Orinoko eta Amazonetako esploratzailea. Gazterik aita galdu zutela, amak, kalbindar sustraiko moral hertsixkoduna, Berlingo humanitate eta zientzia maisurik hoberentsuenak kontratatu zituen bere semeei etxean irakasteko.

Gero Frankfurt eta Göttingeneko unibertsitateetan ikasi zuten. Amaren ustean Gilenek Zuzenbidea ikasi behar zuen gero Estatuaren administrazioan jarduteko. Baina Zuzenbidez gain hizkuntza klasikoak eta Kanten filosofia ere sakonki ikasi zituen.

Kultur giro aberatsa ezagutu zuen: Kanten filosofia, Goethe eta Schiller-en literatura, ilustratu eta prerromantikoen arteko eztabaidak, aleman nazionalismoaren sustrai filosofiko eta kulturalak, Herder-en kultur antropologia, hizkuntzalaritza historiko-konparatibo berriaren haziak...

Jakintzaren unibertsaltasuna ez ezik ikasbide hautak erabili zituen: bat, eztabaida eta eztabaidatzeko gogoia; bestea, ibilaldiak egitea, pertsonaia ospetsuak eta jendeak, nazioak eta hauen izaera zuzenean ezagutzeko. Bereziki Italiara nahi zuen, Goethe eta Schiller-ek egin bezala, baina



Gilen Humboldt (1767-1835).

2

Napoleonen kanpainek eragotzi zioten, orduan behintzat. Hortaz, unibertsitate ikasketak amaituta, Alemaniatik bidaldi bat egin ondoren Parisera joan zen, iraultza giroan, Campe ilustratu eta irakasle ohiarekin.

Humboldt izpiritu libre eta, ilustratu gisa, praktikoa izan zen. Munduko herritartzat zuen bere burua, Herder-ek eta bezala. Liberala eta agnostikoa, bestenaz. Bere jatorri, hezkuntza eta ondasunei esker bere garaiko izpiritu garrantzitsu guztiekin harremanak izan zituen: erregeak, estatu gizonak, estrategak, jakintsu eta artistak, idazle eta poetak, garai hartako bizitza izpiritualaren eragileak... Esate baterako, Goethe eta Schiller-ekin harreman estuak izan zituen. Politika aldetik oso bizia eta aldakorra izan zen aldi hura. Harreman horiek izateak bere izpiritua zabaltzera eraman zuen Humboldt.



Herder-en *Abhandlung über den Ursprung der Sprache* liburuaren Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua euskal itzulpena.

Estatu gizon izan zen Humboldt ikaskuntza, lanbide eta irabazpidez. 1790ean Estatuaren administrazioan jardun zuen, letradu laguntzaile gisa, Berlingo epaiketetan. Praktika juridikoak ez bide zituen gogokoegi, nahiz beti izan zuen gizarte arazoek kezka. Nahiago zukeen teoria landu. Horren erakusburu dira Konstituzioaren inguruan, gizabanakoaren eskubideetan oinarrituz, idatzi zituen idazlan teoriko-politikoak.

1791n ezkontzen da Karolina Dacheröden-ekoarekin, lurjabe handi baten alaba, Erfurt-era joanez bizitzera, eta, 1794an, Jenara, Schiller-en ondoko etxebizitza batera, Weimar-etik hurbil. Ama 1796an hil ondoren, oinordekotza jaso eta Parisera itzultzen da berriro bere familiarekin.



Carolina Humboldten erretratua.

EUSKAL HERRIRA, NAZIO IZAERAREN BILA

Frantsesen izaera nazionala ezagutzera doa Parisera, antropologia azterlanetan ari baitzen. Urte batzuk igaroko ditu hor bere familiarekin iraultza ondorengo giroan (1795-1799), bere pentsaera garatzen ari den bitartean. *Ideologoak* esaten zitzaienak ezagutzen ditu (Destutt de Tracy, *girondarrak*), bai eta Madame de Stael, David pintorea, Rousseuren alarguna, Napoleon, etab. *Ideologo* horiekin eztabaidak ditu, bera Kanten filosofiaren ildotik abiatzen baita nahiz bere burutik pentsatzen ari den. Goetheren *Hermann eta Dorothea*-ri buruzko saiakera literario bat ere idazten du.



Goethe eta Schiller-ekin harreman estuak izan zituen.

*Ideologo*en artean Dominique Joseph Garat euskalduna (1749-1833) ezagutu izanak axola du. Garat-ek euskara ezagutzeko gogoia piztu ziokeen, eta Euskal Herriaren berri eta argibideak eman ibilaldia prestatzeko. Espainiara nahi du eta Baionatik Madrilerakoan Euskal Herrian denboraldi labur batez gelditzen da, iragaitzez. Bideak eskasak izan arren familia osoak (bi seme-alaba gaztetxorekin eta emaztea haurdun zela, gainera) zaldiz eta mandoz zeharkatu zuen Euskal Herria, bederatzi egunez.



Garat-ek euskara ezagutzeko gogoia piztu zion eta Euskal Herriaren berri eta argibideak eman ibilaldia prestatzeko.

4

Ibilaldi labur honen ondoren, Euskal Herriak eta bereziki euskarak kilikatuta, euskaldunak eta haien hizkuntza ondo ezagutzeko erabakia hartu zuen. Madriletik Pariseratu ondoren, Biblioteca Nazionalean euskal liburuak irakurri eta 1801eko udaberrian, 34 urte zituela, gurera itzuli zen, bera bakarrik oraingoan, hemengo jende, hizkuntza, toki, bazter eta gauzak aztertzerako. Harrezkero, Euskal Herriaren barrena eginiko ibilaldiek haren pentsaera eta hizkuntza azterketak markatuko zituzten.



Kant-en filosofiatik abiatu zen Humboldt.

ENBAXADORE ETA KONTSEILARI

Berlinera 1801ean itzuli ondoren, politikari ekin eta kargu garrantzitsuak izango ditu 1802-1819 bitartean. Humboldt estatu gizona izan zen, alderdirik ez zen garai batean. Baina bere buruz pentsatzen zekien politikaria, eta hortaz ez beti erosooa beste batzuentzat. Ilustratu kontserbadorea zen, aurrerazalea baina ez iraultzaren aldekoa.



Gilen Humboldt.

Lehenik Prusiako enbaxadore izan zen Erroman. Informe politiko anitz idatzi zuen aldi honetan. Baina 1808an frantses soldaduak Vatikanon sartzen dira eta Berlinera itzuli behar. Prusiaren gainbehera biziko du garai honetan, frantsesekiko gerlen ondorioz. Prusiako administrazioan erreformak abiaraziko dira gizarte eta ekonomian (esate baterako, lur-jabetzari atxikitako bizi guztiko morrontza kenduko da).

1809an Humboldt kultura eta irakaskuntzako kontseilari eta zuzendari izendatua da eta erreformak egingo ditu irakaskuntza sisteman. Berlingo unibertsitatea, eredugarria zatekeena, eraikitzea burutan hartua baitzuen, ekinez eta ariz erdietsiko du xede hori bururatzea. Horretarako, irakasle ospetsuak erakartzen ditu, horien artean Fichte, errektore hautatuko dutena.



1910ean Prusiako erregeak Vienako enbaxadore izendatzen du (nahiz, bide batez, Adelung-ek *Mithridates* liburuan euskarari buruz esanak aztertzeke denbora hartuko duen). Baina Frantzia eta Prusiaren arteko aliantzak kezkatzen du. Gero Napoleonen gudu galtzeak gertatuko dira Errusian eta Leipzigen. 1812an *Alemanian* *Etorkizuneko Konstituzioaz Memoranduma* idazten du.

1814-1815ean Vienako Kongresuko partaide izango da, Napoleonen gudu eta desmasien ondoren Europako ordena berria ezarri zuena. Hardenberg Prusiako ordezkari ofizialarekin batera –eta haren mendeko–, jardungo du, baina hura Metternich austriarrarekin hobeki konpontzen zen Humboldtkek Prusiaren interesez zituen ideiekin baino.

Gero, enbaxadore izan zen Londresen (1817-1818), sei hilabetez. Hor ezagutu zuen Franz Bopp hizkuntzalaria, konparatismoaren sortzailea. 1819an Estamentu Arazoetako Ministro izan zen. Baina konstituzio arazoei buruz zituen ideiak eta idazkiak ez zituztela aintzat hartzen eta dimititu egin zuen. Ondoren, azken 15 urteetan, bizitza pribatura erretiratu eta hizkuntzalaritzako gaiak landu eta idazteari ekin zion.

6

HEZKUNTZAREN ERABERRITZAILE

Beraz 1809an Prusiako Barne-ministerioaren peko kultura eta irakaskuntza publikoko kontseilari eta zuzendari izendatzen dute, haiek erreformatzeko xedez. Erreforma honek Humboldtten izena darama, nahiz eta kargu horretan hamasei hilabete ere ez zituen bete.

C. Menze-ren arabera, Humboldtten erreforma orotarikoa da. Humboldttek gizakiak makina baten puskateria

balira bezala ari direla ikusten du, eta ikuspegi hori aldatu nahi du, pentsabidea aldaraziz. Gizakiaren barne-indarra eta autoformazioa ditu xede; gizadia gizabanakoaren barnean ikusten du, eta gizabanakoa gizadiaren osagai. Hezkuntza (*Bildung*) eskubide eta eginbidetzat dauka. Hezkuntza bera da helburu.

Hezkuntza osotasun egituratua da harentzat, eskolan, maila ertainetakoan eta unibertsitatean



Vienako Kongresua. Napoleon I.a garaitu ondoren, Europa berrantolatzeko eginiko kongresua (1814-15).

banatua. Eskolan Pestalozziren bidea nahi du. Institutuetan hizkuntzak (estatukoa eta klasikoak), Geografia eta Historia, Gimnasia, Matematika, Artea ezarri nahi ditu irakasgaitzat. Unibertsitateak, ordea, ez luke, Humboldten irizpidean, eduki konkreturik izan behar: jakintza zabaltzeko eta libreki filosofatzeko eremua izango litzateke. Eta unibertsitateko denboraldia, bizitzako artea ikasteko sasoia.

Haren arabera irakaskuntzak ez du trebatu edo moldarazi behar, ikaslearen autoekintza bultzatu edo pitzarazi baizik. Ikaslea ez da pertsuaditu behar, baizik haren indarrak garatzen lagundu. Eguneko kezkek ere ez lukete hor tokirik. Humboldten erreforman erlijioa ez da oinarri, noski.

Irakasleak ez maisu baizik bultzatzaile, filosofokide izan behar luke. Eta Hezkuntza erakundeak, autohezkuntzarako tresna, ez arauak emateko erakunde. Funtsean, Humboldtek Estatu erakunde juridikoa dela, ez hezkuntza erakunde, defendatu du. Hots, Estatuak ez duela eskumenik hezkuntza kontuan, baina segurtatu behar duela egiteko hori.

Humboldten erreforma batez ere eskolan ezarri zen praktikan. 1810ean

dimititzerakoan, haren erreforma bururik gabe gelditzen da eta ez dute jarraituko. Haren ideiak eta jokaera ez ziren nagusitu erakundeetan eta hau Estatuaren eta Elizaren aliantzagaratik gertatu zen. Erakunde hauek erreformari arriskugarri zeritzoten, arriskugarri beren buruentzat, Humboldt liberala baitzen eta ez baitzuen onartzen Estatuak gizakiaren gainean koakziorik egiterik. Geroztik Hegelen irizpideak gailendu ziren.

Nolanahi ere, emaitza baliotsuak erdietsi zituen. Oro har, hezkuntzari indar handiagoa eman zion. Eskola balioztatu zuen, nazioaren hezkuntzarako oinarritzako maila gisa. Eskola-maisuari eta bereziki institutuko irakasleari beren buruen kontzientzia eman zien, teologoei aurre egiteko gaituz. Hezkuntza orokorra hezkuntzaren ardatz bihurtu zuen. Eta nazio osoa hezkuntzaren erantzulekide egiten saiatu zen.


Batez ere Berlingo unibertsitatearen sortzailatzat ezagutua da Humboldt. Eragin handiko unibertsitatea, Berlin Europako kultura-hiriburu bihurtuko zuena. Zientzia-erakunde eta unibertsitatearen arteko aliantza ere bultzatu zuen, Alemaniako garapen zientifikoa oinarritzeko. *Institutu humanistikoa* deitu goi-eskolaren sortzailea da, gainera, Humboldt.

HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZA

Humboldtten pentsaeran hezkuntza eta hizkuntzaren arteko harremanak axola handikoak dira. Gizakiaren jokaera errotaren idurikoa da, haren ikuspegian: gizakiak bultzatzen duen errotak –aurrerakuntzarenak– berak ere bultzatzen du gizakia eta itzulinguruka ibilarazten. Humboldttek gizakiaren gizatasuna –ez makinatasuna– nahi zuen. Hortaz, hizkuntza –hots, gizakiaren eta munduaren artean dagoen hori– zer den eta zer harreman dagoen hitz egite eta pentsatzearen artean galdetu eta gogoeta egin zuen.

Hizkuntza munduaren ikuskera da haren pentsabidean; hizkuntza bakoitza, munduaren ikuskera konkretu baten adierazpide. Beraz gizarte biziak elkarrizketa bizia sortzen du. Humboldt hizkuntzak gizakiari dakarkionaz axolatzen da; baita kanpoko hizkuntzen ikasketen eta itzulpenaren balioaz ere. Hain zuzen, grekerazko obra klasikoen itzultzaile izan zen bera ere: Eskiloren *Agammenon* eta Pindaroren *Odena*.

Hizkuntzari buruzko axola hauek geroztik positibismoak moztu zituen; inork ez zien eskerrik, nonbait, egitateei eta ez ideiei begira zegoen mundu batean. Hala ere, XX. mendeko 20.eko hamarkadan hizkuntzalaritzan oihartzunik izan dute eta II. mundu gerra ondoren berpiztu egin ziren haren ideiak. Ikaslan anitz agertu dira azken bi hamarkadetan.



W. Humboldt-en lanen gaineko azterlana, Minotauro argitaletxeak 1959an argitaratutako liburua.

IDAZLANAK

Garaikideek Humboldt batez ere estatu gizon eta diplomatiko legez aintzat hartu zuten, Prusia Napoleon Handiaren garai zailetan zerbitzatu zuen gizontzat; baita Berlingo Unibertsitatearen oinarriak ezarri zituena eta institutu humanistikoa sortu zuena legez. Baina kontua da Humboldték bere azken 15 urteetan ia guztiz hizkuntzaren azterketan jardun zuela eta hizkuntzalaritza orokorrean aintzat hartua dela. Hizkuntzalaritza da haren lanen lan eta emaitzarik bikainena.

Hona haren idazlan aipagarrienetariko batzuk: *Hizkuntz azterlan konparaziozkoari buruz hizkuntz garapenaren aro desberdinekin lotuta (Über das vergleichende Sprachstudium in Beziehung auf die verschiedenen Epochen der Sprachentwicklung , 1920). Gramatika-formen etorkiaz eta horien eragina ideien garapenean (1821). Giza hizkuntzaren egituraren diferentziari eta hark Gizadiaren garapen izpiritualean duen eraginari buruz (Über der Verschiedenheit des*

menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluss auf die Geistesentwicklung des Menschengeschlechtes, 1830-1835).

Hizkuntza, izpirituaren gidari edo bideratzailetzat du Humboldték. Pertsona eta nazioen izaera izpiritualera ezerk ez duela hizkuntzak baino gehiago hurbiltzen uste du. Bere bizitzan politikak denbora jan bazion ere, inoiz ez zion utzi hizkuntzak ikasteari. Areago, hizkuntz(ar)en azterketa, bere bizitzako hari gidari izan zen. Grekera, latina, frantsesa, ingelesa, espainiera, euskara, italiara, txekera, hungariera, Amerikako hizkuntza indiarak, Indonesia eta Polinesiako uharteetakoak, sanskritoak –hau zahartzaroan– ikasi eta txinera klasikoan ere sartu zen. Hizkuntzen jakintzan bere garaiko eta ondorengo hamarkadetako hizkuntzalari gehienei nagusitu zitzaien.

Hala ere, bera ez zen hizkuntzalari lanbidez. Oharrak hartu ohi zituen eta gero horiek landu. Haren izkribuetako idazkera zaila da, kontzeptuen definizio falta dagoelako eta publiko irakurle batengan pentsatu gabe idazten duelako.

HAREN HIZKUNTZALARITZA ETA GARAIOA

Humboldt bere garaiko hizkuntzalari garrantzitsuenetakoa bihurtu zen. Zabal onartua dago hizkuntzalaritza orokorrean eta hizkuntzaren filosofian hark ekarria garaikideenaren gainetik dagoela. Haren hizkuntza ulertzeko era (mundu ikuskera islatzen duelakoa, etab.) oinarri antropologiko eta linguistiko-filosofiko zabal batean oinarritzen da. Hizkuntza komunikaziobide baino zerbait gehiago da haren pentsaeran: gizakiari mundurako sarrera izpirituala irekitzen dio eta solaskideekin munduari buruz hitz egin ahal izateko gaitzen du.

Humboldtek hizkuntza hiru mailatan kokatzen du: gizabanakoarenean, hizkuntz komunitatearenean eta gizakiaren ezaugarri esentzial gisa. Hizkuntz komunitatearena da garrantzitsuena, eta munduko hizkuntza ezberdinei dagokie. Hor mamitu daitezke hizkuntz eta gramatika deskripzioak, literatur testuak, eta hizkuntza bakoitzaren berezitasuna eta izaera ulertzea. Horrekin batera, hizkuntza batek bere hitzunei irekitzen dien pentsamen aukeretara sartzea. Hizkuntzalaritzak mundu-ikuspegiaren ikerketaren bitartez giza izpirituaren ezagutzarako laguntza garrantzitsua eman dezake.



W. Humboldt-en lan baten itzulpena, Justo Garatek burutua eta RIEV aldizkarian 1931n agertua.


Hortaz hizkuntzalaritza modernoarentzat Humboldttek duen garrantzia azpimarragarria da. Batzuen ustez (H. Gipper, esate baterako) Humboldt hizkuntzalaritza modernoaren sortzailea da. Haren hizkuntzaren ulermenak bidea irekitzen duela diote, zeren giza existentziaren alde garrantzitsu guztiak kontuan hartzen dituen, ezin baitaiteke linguistika modernoaren norabide berezi guztiek duten aldebakartasunaren arriskuan eror.

Baina Humboldtten garaian eta ondoren hizkuntzalaritza ez zen Alemanian eta Europan haren bidetik abiatu. Aitzitik, hizkuntza indoeuroparrak aztertzeaz, hizkuntza indogermanikoak hizkuntza komun batera itzularazteaz axolatu zen. Hizkuntzalaritza historiko-konparatiboa garatu zen (Bopp, Rask, J. Grimm, Schlegel anaiak...), batik bat lege fonetiko indoeuoparren azterketa historikoa egiten zuena. Humboldttek ere parte hartu zuen, hein batez, joera horretan: sanskritoak ikasi zuen, Bopp eta Schlegel babestu zituen eta hauekin etengabe harremanetan izan. Baina gramatikari gazteek hizkuntzalaritza zientzia zehatza bihurtu nahi zuten, lege fonetikoak eta salbuespenak zorrotz finkatuz. Eta joera hau Humboldtten hizkuntzalaritzatik urruntzen zen.

Hortaz, haren hizkuntzalaritza zabalagoa izan arren, ia eraginik gabekoa eta ahaztua gertatu zen XIX. mendean. XX.ean, ordea, haren hizkuntza ulertzeko erak hizkuntzaren teoriaren zabalpena ekarri du eta hizkuntzalaritza enpirikorako emankorra gertatu da.

Noski, Humboldt ez zen ahaztua izan erabat. Haren tradizioa batez ere hizkuntz tipologiaren eremuan garatu zen, Humboldttek hizkuntza malgukari (flexiodun), eranskari, isolatzaile eta inkorporatzaileak bereizi baitzituen. Tamalez, hizkuntzen kidetasun tipologikoan –ez genetikoan– oinarrituriko sailkaketa onargarrien garaia ez zen oraino iritsia. Izan ere, hizkuntz tipologiak edo beste hizkuntzekiko kidetasuna bilatzeak axola handia du euskara bezalako hizkuntza bakartu batentzat. Eta hori egin nahi zuen espreski Humboldttek.

11



BERRIZ MODAN

H. Gipper-en arabera, 1920ko hamarkadan Humboldtten ideiak berriz aintzat hartzen hasi zen Ernst Cassirer, eta bereziki Leo Weisberger. Gero estrukturalismoaren barnetik ere bai, eta gaur bada mugimendu bat Alemanian Humboldt berri bat erakusteko lan egiten ari dena.

Weisgerber-ek (1899-1985) Humboldtten ideia batzuk bere kasa garatuz, aleman hizkuntzaren deskripzioari aplikatu dizkio, emaitzak lortuz. XX. mende erditsuan hizkuntzaren edukiaren ikerketa oso arrakastatsua gertatu da Alemanian. EEBBetan Whorf, hopi hizkuntzaren eta mendebaldeko *Standard Average European* delakoaren arteko ezberdintasuna zehaztu dezakeelakoan, Humboldt eta Weisberger-en hizkuntzaren kontzeptuaren antzeko batez mintzatu da, *pictures* edo *views of the world*, munduaren irudi edo ikuskerez alegia.

Chomsky amerikar hizkuntzalari ospetsuak gramatika sortzailearen oinarritzatze teorikoan espreski Humboldtengana jo du. Chomsky, hizkuntza bat hitz egiteko gaitasuna duen hiztunak nola uler ditzakeen inoiz entzun ez dituen esaldiak galdetzetik abiatzen da. Eta egia da Humboldttek giza gaitasuna azpimarratu zuela.



W. Humboldt-en lan baten itzulpena, Justo Garatek burutua eta RIEV aldizkarian 1933an agertua.

Baina, Chomskyk Humboldtten oinarritzko pentsamenduak zuzen ulertu ez bide dituen arren, «gaizki ulertzea» emankorra gertatu da. Beraz hona berriro Humboldt hizkuntzalaritza modernoaren arretea erakartzen. Harrezkero mundu anglosaxoniarrean ja ez da Gilen hizkuntzalaria honen anaia Alexanderrekin nahasten. Baina Alemaniatic landa oraindik ez du arrakasta handirik.

Alemanian, hartaz oroitu dira berriro filosofian (Gadamer, Heidegger...). Eta, duela zenbait urtetatik hona, hizkuntzalari eta filosofo gazteak (J. Trabant, K. Müller-Vollmer, etab.) Humboldtten testuen interpretazio berria egiten ari dira.



Chomsky hizkuntzalariak gramatika sortzailearen oinarritzatze teorikoan Humboldtengana jo du.

HIZKUNTZA, MUNDU IKUSPEGI

Humboldt Kanten filosofiatik abiatu zen, adimenaren kontzeptu edo kategoria *a priori* direlakoetatik. Baina auresuposizio filosofiko hauek hizkuntzari begiratzuz gainditu zituen. Hain zuzen, kontzeptua hitza (zeinua eta adieraziak osatua) gabe ezin daitekeela sortu eta ez iraun pentsatzen zuen.

Humboldttek hizkuntzaren jatorri eta bilakaeraz jardun zuen, bai eta tipologiaz. Haren oinarritzko usteetarik bat gizadia bere osaketa izpirituarentz gorako bilakaera izpirital jarraiki batean ari dela da. «Hizkuntza gizadiaren sakoneratik sortu da», «izpirituaren nahitaezko isurpen da, ez nazioen lan» idatzi zuen. Pentsamendu tresna gisa hizkuntza herrien aurreranzko bilakaerari lotua dago. Mendebaldeko pentsamenduaren miresle legez, grekera klasikoari, sanskritoari eta hizkuntza indogermaniko malgukariei lehenatasuna eman zien (nahiz, beti pentsamenduarekiko harremanen arabera hizkuntza tipo desberdinen alde onak eta ez hain onak aztertuz). Adibidez, bikaintzat zituen grekera eta sanskritoaren flexio aberastasunaren galera –hizkuntza berriagoetan agertzen denez– izpirituaren gorako mugimendu horren

14


agerpen gisa –alferrikako formak bazterten baititu– ulertzen zuen Humboldttek, konparatistek fenomeno hori deitoratzen zuten bitartean. Honetan ilustrazioaren semeago zela erromantizismoaren baino, erakutsi zuen.

Humboldtten pentsaeran hizkuntza osotasun bat da, giza adimenaren sorkaria, gizakien existentziari lotua. Hizkuntzaren ikuspegi zabala zuen. Alde batera utziz gizabanakoaren eta komunitatearen arteko harremanari buruzko ideiak, hiztun eta hizkuntzako objektibitate eta subjektibitatearen arteko elkarloturari buruzkoak, etab., aipagarri dira haren ideia nagusi batzuk. Berezi hizkuntza bakoitzak mundu-ikuskerara berezia erakusten duela eta hizkuntza *energeia* dela diotenak.

Hizkuntza mundu ikuspegi (*Weltansicht*) linguistikoa dela dio Humboldttek. «Hizkuntzen arteko ezberdintasuna ez da soinu eta zeinuena, baizik mundu ikuspegiarena». Hizkuntza bakoitzak mundua bere eran ekartzen duela pentsamendura, mundua bere kategoria eta kontzeptuen sare propioan hartzen duela. Hizkuntza batean hazten denak, ohartu gabe jasotzen dituela haren ikuskerak, nolabait esateko mundua bere

ama-hizkuntzaren betaurrekoen bidez ikusten duela. Hori gertatzen omen da, adibidez, ortzadarraren koloreekin: egungo kolore batzuk –laranja eta morea– ez ziren XIX. mendean; beste hizkuntza batzuetan lau edo bi kolore daude; kolore tonu desberdinen aniztasuna ezberdin sailkatua dago, kontuan hartzekoak diren ezberdintasunak hizkuntzak berak zehazten baititu. Hortaz, Humboldttek hizkuntza komunitatearekin –«nazioarekin», bere hitzetan– berdintzen du.

Batzuen ustez, mundu ikuspegi linguistikoen pentsamendua hizkuntzalaritza modernoak jaso duen bizigarrienetakoa da. Ez omen du balio hizkuntza eta herrien arteko bereizkuntza gehitzeko eta alde komunak ahazteko; aitzitik, berezitasun propioak ulertzea ahalbidetzen omen du, horrela lor baitaiteke herriek elkar ulertzeko auresuposizioa.





Wilhem von Humboldt, un puente entre dos pueblos lana, RIEV aldizkarian 1995ean agertua.

Gero, hizkuntza ez lan (*Ergon*) baizik ekimen (*Energeia*) gisa hartzen zuen Humboldttek; sorkuntza, izpirituaren isurtze eta lan, pentsatzearen baldintzat. Hizkuntza, indar eragile, komunitate baten munduari hitza emateko prozesu gisa, izpirituaren autoerrealizazio gisa ulertzen zuen. Hizkuntzaren erabilera, hizkuntza baten ahalbide eta kualitate bereziak edo izaera berezia batez ere literatura eta hitzaren artelanean azaltzen dira ondoen. *Energeia* beraz hizkuntza indarraren garapen eta aldi berean pentsamendua eratzen duen indar formala da. *Energeia* delako kontzeptu honekin hizkuntzalaritza eta literaturaren arteko lotura agertzen du Humboldttek.


Hizkuntzaren esentzia eta emaitzaz, azterketa orokor eta konparatzaileaz oinarri sinkroniko-tipologikoaren gainean Humboldttek zirriborraturiko panorama handia izan zen. Ideien zabalpen eta aniztasunean, sakonera eta problematikarekiko sentimenean –gizakia, hizkuntza eta munduaren bilbadurak tinkatzen duena– garai agertzen da Humboldt, zeinek antropologia, filosofia eta gizakiaren beste zientzien arteko zubi irmoa ezarri baitzuen.

16

IBILALDIEN ONDORENGO LIBURUAK

Lehen bidaldian (1799) ohartua zen euskara zaharra ez ezik berezia zela bakartuta zegoelako. Hala ere, Euskal Herria bereziki antropologia aldetik

(herri, hizkuntza, kultura eta pentsaeraren arteko harremanak) interesatzen zitzaion. Hemengo jendea bizirik eta tokian bertan, beste herri eta kulturak bezala, ezagutu nahi zuen. Baina orduan hizkuntza zela giltza konturatu zen. Gainera euskarak



Humboldt-ek Euskal Herrian eginiko lehenengo eta bigarren bidaien mapa.

hizkuntzalaritza konparaturako aukerak eskaintzen zituen. Hortaz, lehen bidaldiaren ondoren euskal liburuak irakurri eta euskara ikasi zuen. Bigarren bidaldian, berariaz eta aurretiaz prestatu ondoren egina (1801), orotariko argitasunak bildu zituen euskaldunei buruz.

Ibilaldietan hartutako ohar anitzak landu eta idazki eta liburugaiak moldatuz joan zen. Hauek dira lehenak: *Euskal bidaldiaren egunkaria. 1801 (Tagebuch der baskischen Reise. 1801). Euskaldunak edo 1801eko udaberrian Bizkaia eta frantses Euskal Herrian barrena eginiko bidaldi baten inguruan oharrak (Bemerkungen auf einer Reise durch Biscaya und das französische Baskenland in Frühling des Jahres 1801, 1805-1806)*. Egileak ez zituen argitaratu, nahi izan arren, Goetheri gutun batean diotsonez, eta 1918 eta 1920ra arte ez zuten argirik ikusi alemanez ere.

Bere lanbideak uzten zizkion tarteetan idazkiok landuz, euskaldunei buruzko monografia bat egin nahi zuen, baina beste liburuetarako baliatu zituen eta ez zuen monografia hori osorik argitaratu. Haren parte ziratekeen Euskal Herriaren deskripzio generala; gramatika (baditugu haren eskuko zenbait zirriborro), testuak,

euskara eta beste hizkuntzen arteko konparaketa, eta hiztegi bat; bai eta ikerketa prehistoriko eta filologikoak euskal nazio eta hizkuntzaz. Hala ere, zati batzuk argitara zituen 1812an: *Euskaldunen Monografiaren inguruko puskak (1801-1802) (Fragmente der Monografien über die Vasken, 1801-1802)*. Bai eta *Euskaldunen Hizkuntza eta Nazioaren gaineko idazlan baten iragarpena, haren ikuspuntu eta edukiaren berri emanez (Ankündigung einer Schrift über die Vaskischen Sprache und Nation, nebst Angabe des Gesichtspunktes und Inhalts derselben, 1812)*.

Euskararen inguruko bi liburu nagusi argitara zituen:

Zuzenketak eta Gehigarriak Mithridates-en bigarren liburukiaren lehen atalari, Kantabriar edo Euskal Hizkuntzaren gainean (Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache, Berlin, 1817).


Espainiako Lehen Biztanleei buruz Euskal Hizkuntzaren bidez eginiko Ikerketen Azterketa (Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der vaskischen Sprache, Berlin, 1821).

Duela gutxi argitara dituzte beste idazki, gramatikagai eta hiztegigai batzuk, haren paperen artean lo zeudenak. Bai eta Dominique Joseph Garaten (1749-1833) artikulua bat. Idazki horietako bat 1800-1801eko da: *Euskarak beste hizkuntzekin duen kidesunaz eta haren etorkiaz*, tesi laburren itxuran eta lan sakonago bateko sarrera gisa moldatua. Hor euskara beste hizkuntzekin konparatzea proposatzen du, eta ez bakarrik europarrekin; kumriera-zeltarekin, esate baterako, eta Amerikako indiarrenekin ere bai. Hau da, batzuek diotenez, euskarari buruzko Humboldtten lehen lana, nazio-hizkuntza eta historiaren



Diario del viaje vasco lana, RIEV aldizkarian 1923an agertua.

arteko loturez, geroago 1820ko lanean segituko duena (*Hizkuntz azterlan konparaziozkoari buruz hizkuntz garapenaren aro desberdinekin lotuta*). Gai hau aipatu *Giza hizkuntzaren egituraren diferentziari buruz* lanean ere garatuko du, eta hor indogermanikoaren, ekialdeko hizkuntzen eta hizkuntza amerikarren ikerketen emaitzak bilduko ditu. 1800-1801eko lan horretan ja geroko funtsezko ideia batzuk garatzen hasiko da.



Guillermo de Humboldt y el País Vasco lana, RIEV aldizkarian 1925ean agertua.

EUSKALDUNAK ETA EUSKARA, GIDARI

Euskal Herrira eginiko bidaldiei esker Humboldtak ordura arteko norabidea aldatu eta finkatu zuen, bere azterketa-metodoei dagokienez. Ordura arte antropologia kontuek erakartzen zuten batez ere, gizabanakoa eta nazioen izaera bere osotasunean ulertu nahi zituen, eta honetaz guztiaz euskaldunen hizkuntza aztertzerakoan jabetzen da. Euskal ikerketek erakusten diote



Leloaren Kantua agertzen den Humboldtaren eskuizkribua.

Humboldti beharrezkoa dela antropologiaren aztergaia hizkuntzan kokatzea, hau baita gizakiaren eta nazioaren elementu artikulatzailea. Hizkuntza bihurtuko da gero eta gehiago haren interesgune nagusi: lehen nazioak konparatu nahi bazituen, hemendik aurrera hizkuntzak konparatu nahiko ditu.

Humboldtak berak aitortzen du, euskaldunak eta haien hizkuntza bere hizkuntzalaritzan zergatik bihurtu ziren hain axola handikoak azaltzerakoan, Euskal Herrira etortzeak, populu baten izakerari, haren hizkuntza eta herrialdearen arteko barne-loturari dagokienez, gauzak beste era guztiz desberdinean ikusarazi zizkiola zorionean. «Lehen esperientzia honi jarraitu nintzaion gainerakoan» (*Giza hizkuntzaren egituraren diferentziari buruz*). Ondoren Ameriketako eta Kaukasoko hizkuntzak ikasiko ditu, lehen aldiz antzekotasun tipologikoak aurkitzeko. Beraz haren hizkuntzalaritza ikerketak Euskal Herrian egonez geroztikoak dira, eta hemen gaindiko ibilaldietan bildutako datuak aztertzeari ekin zion gogotik hogeitabat urtez.

ETORKIA ETA BEREZITASUNA

Humboldtten ikuspegiari euskara herri baten pentsatzeko eta sentitzeko molde edo marka bizia zen. Jatorriz herri enbor berezi baten hizkuntza trauskil eta landugabea, bere jatorrizko garbitasunean gordetzen zelako hizkuntzen arteko konparaketarako eredu zatekeena, Europako prehistoriarako interes bizikoa izateaz gain.

Ordura arte euskara ikertu nahi zuten hizkuntzalariek hizkuntza zaharra eta desberdina zela bazekiten, eta euskaldunen etorkia eta euskararen berezitasuna ikertu nahi zuten. Baina tresnarik ez zuten; idazki zaharrik ia ez zen. Hortaz toki izenez baliatu behar ziren, baina lehenik horien forma zaharrenak bilatu eta etimologia eraiki

behar, eta etimologia troxetan zen oraindik. Humboldttek baino lehenago, XVI. mendean Poza lizentziatuak bildu zituen iberiar penintsulako toki izenak, ustez euskaratikoak.

Humboldtten *Espainiako Lehen Biztanleei buruz Euskal Hizkuntzaren bidez eginiko Ikerketen Azterketa* liburuak (1821) teoria berri bat sortu zuen, iberiarrak euskara mintzatzen eta euskaldunak iberiar zaharrendik datozela dioena. Geroztik Schuchardt eta besteren ikerketak bide beretik joan ziren. Baina Humboldtten teoria hau 1921az geroztik ezin da baieztatu, orduan Gomez Morenok iberiar idazkera irakurri ahal izan baitzuen, euskararen laguntzarik gabe. Hala ere, oraindik ezin da ulertu eta beraz ezin guztiz ezeztatu aipatu teoria, iberiar

Anuncio de una publicación sobre la lengua y nación vascas
con noticia del punto de vista y contenido de la misma

De G. Humboldt

Traducido del tercer tomo de «Gesammelte Schriften» pág. 288 (1904)

por J. Garate



inskripzioen esanahia zein den jakin arte. Ez dakigu zehatz, oraingoz, zer zen iberiarra eta euskararekin zer harreman zuen.

Humboldték arrazoi du, ordea, beste puntu batean: euskara egun baino zabalduagoa zela. Iberiarrak ez ezik, zeltak eta haien hizkuntza iberiar penintsulako jatorrizkoak zirela baieztatzea ere gauza berria zen. Bestalde, Ekialdeko Iberiatik,



Astarloak eta Mogelek euskal herri-kulturako emaitzak aintzat hartu zituzten.

Kaukasotik alegia, Mendebaldeko Iberia Penintsulara emigrazioa izan zelako hipotesia planteatu zuen, nahiz oso zaila den ezer frogatzea. Ohargarria da ere, haren aldetik, hizkuntza orijinalen bilaketa, Bibliaren ildotik.

Euskara iberiar, hots, europar lehen biztanle indogermaniar ez zirenen hizkuntza eta penintsulan hedatua omen zelako teoria ez da orijinala eta, bestalde, nabaria da Hervas, Astarloa eta Erroren eragina. Hala ere, hizkuntzen historiaren hasieran *Espainiako Lehen Biztanleak* urratzat jotzen da.


Liburua arrakastatsua izan zen, edukiagatik baino gehiago beste arrazoi batzuegatik, egileak Goethe, Schlegel eta abarri bidali baitzien eta horrela euskaldunei buruzko jakin-mina piztu European, iberiar penintsulako eta are Europako etorkia bilatzeko euskararen garrantzia azpimarratzerakoan. Eta ordura arte euskarak jakintsuak erakarri ez bazituen ere, premian ginen une historiko hartan Humboldtén arartekotza egokia suertatu zen, Mendebaldeko tradizio zientifikoarekin lotura gauzatu baitzuen.

EUSKAL GRAMATIKA ETA HIZTEGIAZ

Zuzenketa eta Gehigarriak Mithridates-en bigarren liburukiaren lehen atalari liburuan (1817) Humboldt euskal gramatika, morfologia eta hiztegiak ari da. Adelung-en *Mithridates* obrari eginiko zuzenketa hauetan batez ere euskara zer tankerako hizkuntza den aztertu nahi du. Haren analisiak bere garaiko hizkuntzalaritzan oinarritzen dira; ongi ezagutzen ditu ordura arteko euskal gramatika eta hiztegiak.

Astarloari jarraitzen dio, nahiz batzuetan bere irizpideak dituen. Esaterako, haren metodoa kritikatzeko, zeinak fonema bakoitzari esanahia

eranstean dion. Eta geroztik besteri egozten zaizkien ideia batzuen esale da Humboldt: *-en* superlatiboa eta genitibo plurala dela era batera; euskararen gramatika kategoriak malguak direla (adibidez, izen eta adjektiboarenak). Euskarak hiru deklinabide kasu dituela soilki dio, egun ergatiboa deitzen dugunaz ohartuz. Partitiboa eta ablatiboa identifikatzen ditu (*-(r)ik*); baita erlatiboaren *-n* marka eta inesibo edo lokatiboarena erlazionatzen. Aditzari dagokionez ere Astarloa goraitpatzen eta hari jarraitzen dio gehienbat, adibidez euskarak aditz bakarra eta laguntzaile batzuk dituelako kontuan ere.




KULTUR ENBAXADORE, ERAGILE, BILTZAILE

Humboldt Europako tradizio eta kultur mugimendu eta joera berrien mandatari gertatu zen. Hain zuzen, gune historiko interesgarrienetako batean, neoklasiko eta prerromantikoen arteko eztabaiden garaian. Zubi-lana egin zuen: hari esker, Euskal Herriko politika eta kultura-jendeak, bereziki euskalariak, kanpoko berri izan zuten; eta kanpokoek gure berri. Garaiko eztabaidak eta ikuspegi desberdinak gure artean aurkeztu zituen eta Euskal Herriaren eta euskaldunen nortasuna Europan ezagutarazi.

Euskal idazleen bultzagile ere izan zen. Humboldtten erregu eta eraginez itzuli zituen Mogelek klasikoen zati eredugarriak: *Versiones Bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores Autores latinos* (1802). Berak ezagutarazi bide zizkion Mogeli *Peru Abarkan* agertzen diren Oihenarten atsotitzak.

Areago, bestela galduko ziren idazlan baliotsu batzuk Humboldtari esker ezagutzen ditugu, haien erreseina eta kritikak egin zituelako (bere iturriak eta lagungarri izan zitzaizkion obrak aipatzerakoan), eta batez ere berak kopiatuta gorde zituelako. Esaterako, Astarloaren *Plan*

23



Peru Abarka liburuan agertzen diren Oihenarteren atsotitzak Humboldték erakutsiak dira.

24

de *Lenguas*-en laburpena edo Mogelen *La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma Vascuence* (1936-1937an argitaratua). Idazlan honetan Mogelek, Humboldt bezala, antzinatea euskararen bidez aztertu nahi du. Mogelek erakutsi zion Humboldti Leloren kanta, honek, orijinala zelakoan, Europan ezagutarazi zuena.

Euskaldunen herri kulturaren erakusburu diren kanta, doinu, ipuin edo kondaira, atsotitz, dantza eta abarren maitale eta biltzailea izan zen Humboldt. Euskal folklore biltzaile lehena edo aitzindaria bederen. Zeren

hark jaso zituelako ezagutzen ditugu XVIII. eta XIX. mende hasierako musikalan eta doinu mordoxka bat, batez ere dantzakoak (zortziko, kontrapas...). Bai eta euskal musikari buruzko lan bat: «De la música del País Vascongado» izeneko eskuizkribua.

Humboldt ez ezik, Astarloak eta Mogelek euskal herri-kulturako emaitzak (herri-literatura deitzen dena) aintzat hartu zituzten. Herri-kultur formen zaletasuna Herdergandik zetorkiokeen Humboldti. Honek kutsatu bide zien Astarloa eta Mogeli edo bestela garai berrietako iturri bertsutik, aurreerromantizismotik, edan zuten.



W. Humboldt-en lan baten itzulpena, Telesforo de Aranzadik burutua eta RIEV aldizkarian 1935ean agertua.



«De la música en el País Vasco» lana Wilhelm von Humboldt, un puente entre dos pueblos liburuan argitaratu da, RIEV aldizkarian 1995ean agertua.

EUSKALDUNEN NAZIO ETA HIZKUNTZA

Humboldtten arabera, euskaldunek nazio bat egiten dute edo nazio bat dira, hizkuntzek mugatzen edo biltzen baitituzte nazioak, ez Estatu politikak edo lurralde baten barrutiko botere batuak. Euskaldunak, leinuz, beste europar herrieekin senidetetasunik gabekoak omen dira. Herri-leinu berezi ere bai, eslabiarrak edo germaniarrak bezala. Areago, beren jatorrizko izaera garbien eta bortitzen gorde dutenak, izaera hori euskarak erakusten duela. Euskaldunen nazio-izpiritu eta nazio izaera ere euskarari loturik daude. Haren agerpen dira, halaber, folklorea, ohiturak, geografia, etab.

Herri-hizkuntza jatorrena, ahozkoa alegia, zientzia eta literaturan erabiltzean, herritasuna galtzeko arriskuan dago, Humboldtten arabera. Herri-hizkuntza herri-kulturari loturik dago. Ilustrazioa hizkuntza eta herri-kultura horri itsats dakioko, ordea. Arriskua hizkuntzaren endekatze eta gainbeheran eta pertsona landuen kultura herrikotik urruntzean omen dago. Honetan liberal ilustratu eta erromantiko-historizisten arteko eztabaida-puntu nagusi bat aurkezten du.

Humboldttek argi ikusi zuen euskaldunek beren hizkuntza, izaera, legedi eta lurraldearen ezberdintasunaren kontzientzia zutela.

25



Justo Garatek 1933an argitaletxean Humboldt-i buruz kaleratu zuen liburua.

Eta hemendik nazio-sentimendua sortzen zela. Areago, sorterrizaletasun edo herrikoitasuna, batzuetan gehiegizkoa izan zitekeena. Euskaldunen sorterrizaletasuna aiton-semetasunetik omen zetorren eta klaseen arteko ia berdintasun eta antolamendu egokiarekin zerikusia omen zuen. Ikusten zuen ere, nazioari leial atxikiarren, elkarren lehian ari zirela, txokokeria hizkuntzan ere nabarmenduz.

Humboldt euskaldunen begirari zorrotza izan zen. Euskal gizartearen antolakuntza eta erakundeen berezitasunei ohartu zitzaien. Izan ere, Europan absolutismoa oraindik nagusi zen garaian, erregearekiko hitzarmenean oinarrituriko sistema miresgarri zitzaion. Baina ez iraunkor, eta absolutismoaren gainbehera eta nazionalismoaren indartze garaian nazio bat Estatu-politikatik at ezin zenez bizi, auzi historiko garrantzitsu bat erabaki behar zen. Hots, nazio txiki batek, beste batzuekin elkartzean, Estatuarekin nolako harremanak izango zituzkeen. Humboldten iritziz, gurea kasu bakarra ez zen eta, gainera, ezberdintasunak, eragozpen beharrean, baliagarri zitezkeen.

Beste aukerarik ezean, euskal nazioaren gainbehera betikoa, are euskararen desagertzea igarri uste

zuen (mende bat baino gutiago iraungo omen zuen), kanpoko eraginek nazio berezitasunak ezabaraziko eta euskara uzurtuaraziko zutela eta. Baina ez espainiar gobernuaren erasoek denentzat ekar zitzaizketen kalteez ohartarazi gabe.



Wilhem von Humboldt-i buruzko erakusketa.



Euskara, Berlingo aldikaria, *RIEV* baino lehenagokoa: K. Hannemann, Th. Linschmann, Van Eys, Vinson, Bonaparte, Schuchardt eta abarrek idazten zuten.

HUMBOLDTEN HARRERA GUREAN

Humboldttek ospe eta omen handia irabazi du Euskal Herrian, batez ere XX. mendean, haren obra osoak argitara eta ondoren gazteleratu zirenetik. XIX. mendean egilearen azken egunetan itzuli zuen Arginzoniz durangarrak gaztelaniara *Zuzenketa eta Gehigarriak* (1835), Aizkibelek oharrak egin zizkiona, baina ez zen argitaratu 1933 arte. *Euskal bidaldiaren egunkaria*. 1801 eta *Euskaldunak* ere 1918 eta 1920ra arte ez ziren argitara eta ezin izan ziren ezagutu gazteleraz ere Errepublika garaira arte.

Artean XIX. mendean euskalarien artean haren izena goraki aipatua izan da, bibliografietan eta etxeko nahiz kanpoko jakintsuen ahotan. Haren omenak, besteak beste, aleman kulturako euskalariak (Schuchardt eta Berlinen ateratzen zen *Euskara* aldizkariaren ingurukoak) bultzatu zituen. Ideologia aldetik ere hark euskaldunen gizarte antolamendu eta erakundeei buruz idatziez baliatu ziren euskaldun kontserbadoreak Euskal Herrian.

27

Oñatin egindako biltzarreko partaideen argazkia.



XX. mendean aipagarria da A. Farinelli, J. Urkixo, Eusko Ikaskuntza eta bereziki J. Garatek eginiko lana Humboldtten euskal lanak ezagutarazteko. Geroztiko idazleetan ere nabaria da Humboldtten ideia batzuen eragina, adibidez hizkuntza, mundu ikuskera berezia delakoarena.



Julio Urkixok eta Justo Garatek lan handia egin zuten Humboldtten euskal lanak ezagutarazten.



Atzerrian oraindik arreta gehiegi erakarri ez arren, eta honen errua agian itzulpen eskasek ere badute, Humboldtten pentsamendu filosofiko-antropologiko-linguistikoa gero eta interes biziagokoa da, batez ere aleman kultura munduan. Pentsamendu unibertsaleko jakintsu honen pentsaerak zer esana eta eztabaidatua eman dezake gure artean ere.

Baina oraindik hark idatziak oro ez ditugu zehatz ezagutzen. Beraz abian den idazlan guztien edizio berriak lagunduko du harenak argitzen eta osatzen. Gero itzulpen onen premia ere badago, funtsezkoa baita; zer esanik ez, guretzat, euskara eta euskaldunei dagozkien idazlanenak.

Schuchardt XIX-XX. mendeetako hizkuntzalari aleman handienetako bat.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Eusko Ikaskuntza.*
- *Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia.*
- *Sancho el Sabio Fundazioa.*
- *Bidegileak bilduma.*
- *Auñamendi. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2000ko abendua
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	Rali, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1611-5 (Obra osoa) 84-457-1614-X
L.G.:	BI-3082-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística